

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

18-6-29 25. ALEA

Toponimia
berreskuratu da

3. ORR. ►►

Hemen dira
aurtengo festak

8. ORR. ►►

Hondakinen
tasen berri

10. ORR. ►►

Saihesbidearen proiektua,
hamarkadetako eskaria

6. ORR. ►►

KRONIKA

Euskararen bideak zabaltzen

Zizurkilgo komertzio eta ostalariek bat egin dute Euskaraldiarekin.



Urtean zehar antolatzen dituen ekintza guztietan, euskara erdigunean jartzea da Zizurkilgo Udalaren apustua 2018an, urte amaieran etorriko den Euskaraldiarekin bat eginez. Maiatza saltsan izan da horren adibideetako bat, baina ez bakarra, herriko merkataria eta ostalari guztiek ere bat egin baitute ekimenarekin.

Ostalariei dagokionez, euskal pintxo-pote egunak antolatzen hasi dira. Elbarre-

nan hileko lehenengo asteazkenean eta herrigunean edo Zizurkil goian hileko lehen ostiraletan. Euskal musika egongo da tabernetan eta euskal pintxoak egingo dituzte. Sarreran Euskaraldiaren pegatina izango dute jarrita, aurkezpenean esan zuten moduan, "helburua euskal giroa jarri eta jendea euskaraz egitera bultzatzea da". Udako atsedenaldiaren ondoren, irailean ekingo diote osteraren ekimenari.

«Udazkenean jarraituko du komertzioetan euskararen erabilera sustatzeko kanpainak»

Komertzioetan kanpaina

Zizurkilgo saltokiek ere egin dute euskararen erabilera sustatzeko lehen kanpaina, ekainaren 11tik 15era. Aste horretan zehar euskaraz erostera joan direnek aitortza berezia izan dute. Txartel bana eman diete saltzaileek bezero horiei eta zozketak egin dira: Pintxo eta potea herriko taberna eta jatetxeetan, gosaria herriko kafetegietan eta erosketa-txartela Zizurkilgo Eroskin, besteak beste. Bigarren kanpaina udazken aldera egin asmo dute, Euskaraldiko hamaika egunak gerturatzeko diren garaian.

Zizurkilgo Udalak eskerrak eman dizkie herriko merkatariei eta herritarrei dei egin die, euskaraz kontsumitzeaz gain, herrian kontsumitzera. Aurten go festetan ere euskarari bultzada berezia emateko lanean ari dira festa batzordeekin.

Euskalkien eguna, bustia bezain ederra

Maiatzaren 12an Euskalkien Eguna ospatu zen herriko elkarte, ikastetxe eta eragile ugariaren parte hartzearekin. Euskararen euskalki ezberdinak entzun eta ezagutzeko aukera izan zen. Horretarako, euskalki bakoitzari eskainitako zazpi postu jarri ziren eta euskalki horietan hitz egiten duten idazle edo kulturgileek irakurketa jarraitua eskaini zuten.

Los comerciantes se han sumado al Euskaraldia

Comercios y establecimientos hosteleros de Zizurkil se han sumado a la campaña Euskaraldia durante este 2018. Por ello, el primer miércoles de cada mes, la gente podrá disfrutar del Euskal Pintxo Pote en todos los bares de Elbarrena. En Zizurkil Goia, este

evento se celebrará el primer viernes de cada mes. Tras la primera experiencia de junio y parón veraniego retomarán la iniciativa en septiembre.

En el caso de los comerciantes, se ha realizado una primera campaña del 11 al 15 de junio. Los clientes que com-

praron en euskera participaron en un sorteo con diversos premios. En otoño se realizará otra campaña similar.

El objetivo de la campaña que se pondrá en marcha en los bares y comercios de Zizurkil es animar a las personas que saben euskera a utili-

zarlo, e invitar a soltarse a las personas que no se atreven aunque conozcan el idioma. El Ayuntamiento llama a los y a las zizurkildarras a consumir en el municipio, y a poder ser, en euskera. Euskaraldia estará también presente en las fiestas.

ERREPORTAIA

Zizurkilek berreskuratu du bere leku izendegia

Amaitu da herriko bailarak eta baserri izenak finkatu dituen prozesua, panelak eta seinaleak jarritz.

Diseminado edo *sakabana* bezalako kontzeptuak erabili izan dira azken hamarkadetan baserri eta landa etxeetako helbideetan. Etxe edo baserri horiek beren jatorrizko bailaren izena izango dute orain.

Hernandorena kultur elkar-
tearen urteetako lana gauza-
tu da, Udalarekin elkarlanean.
Joxin Azkue Hernandorena

taldeko kideak aurkezpenean aipatu zuenez, "1391ko agiri batean, herriko pertsonen zerrenda ageri da: Rumes de Nekola, Santxo Legarralde, Santxo Izibar, Pello Pagamuño, Joan Lardamuño, Joan Zaldúa, Migel Erretenbarrutia, Joan Areta... Horiek guztiak gaur egun dauden baserrien izenak dira. Horrek esan nahi du mendeetan eta mende-

Historia eta errealitatea

la 100 urte geroago, egoera horri buelta ematea izan dute helburu, baina XXI. mendera egokituz. Horretarako urteetako lankidetzaz egin du Hernandorena elkarteak Udalarekin. "Bi ardatzetan oinarritu gara: Bat, fideltasun historikoa. Agiriak ikusi, jendearekin hitz egin... poliki-poliki ulertu genuen





nola banatzen zen herria. Eta bi, oinarri hori hartuta, behar berriei erantzun berriak ematea”, azaldu du Azkuek. Bost

bailaratan banatu da herria, lau historikoak dira: Akezkobailara, Buztinbailara, Elbarrena eta Mendibailara. Kon-

tuan izan guztiek P.M. Otaño plaza zutela garai batean abiapuntu, baita Elbarrenak ere, baina Elbarrena gaur egun soilik beheko auzoari deitzen zaiola ikusita, eta herritarrekin kontsulta eginda, beste bailara bat eratu da, Ergoiena. Zizurkil goiko plaza ingurua berriz, herrigunea gisa izendatu da.

Bailara berri horiek jasota geratu dira eta orain hori gizarteratzea geratzen da. Euren etxe edo baserria *sakabanatu* gisa jasota zutenek sumatuko dute helbide aldaketa, ez Elbarrenan edo herrigunean kaleetan bizi direnek. Udaletik gutunez ofizialki jakinaraziko zaie aldaketa izan dutenei, izendegi berriarentzako azken tramite ofizialak gainditu ondoren. Herritar horiei helbide berriak erabiltzeko deia egiten zaie.

Panel eta mapak

Helbide berriak gizarteratzeko, etxeen eta bailaren izenekin mapa gisako

panelak jarri ditu Udalak. Herrigunetik ateratzen diren bost errepideak hartu dira ardatz panelak jartzeko. Panel bakoitzean ardatz horretan dauden baserriak markatu dira, baserrien argazki eta guzti. Panel orokorra Pedro Mari Otaño plazan jarri da.

Panelekin batera, ordea, etxe bakoitza identifikatzen duen bideko kartelak ere jarri dira, batzuetan egurrezko zutoinetara lotuta bide gurutzeetan, etxeari berari lotuta beste batzuetan. “Beste hainbat herritan seinaleak jarrita daude eta Zizurkilgo landa ingurunean ere bazen hori egiteko eskaera, Aiztondo mankomunitateak egindako inkestak batek erakusten zuenez. Prozesu honekin behar horri ere erantzuna eman diogu”, adierazi dute Udaletik. 189 seinale jarri dira guztira, 109 etxe markatzeko. Garrantzitsuena, herriko ondare toponimikoa jasota geratu dela.

Zizurkil recupera su patrimonio toponímico

Ha finalizado el proceso para recuperar y delimitar oficialmente los valles del municipio y los nombres de los caseríos.

Ha culminado con éxito el trabajo realizado durante años por la asociación cultural Hernandorena, en colaboración con el Ayuntamiento. Según ha explicado

el miembro del grupo Hernandorena Joxin Azkue, “en un documento de 1391 aparece un listado de personas del pueblo: Se mencionan a Rumes de Nekola, Santxo Legarralde, Santxo Izibar, Pello Pagamuño, Joan Lardamuño... Todos ellos son nombres de caseríos. Eso quiere decir que los nombres de las

casas han tenido mucha importancia durante siglos en Euskal Herria y en Zizurkil. Y esos caseríos se encontraban en valles bien definidos. Fue así hasta el golpe fascista. El secretario franquista del Ayuntamiento decidió destruir todo aquello. Utilizó el concepto ‘diseminado’ para todas las viviendas, y

asignó un número a cada casa”.

Casi 100 años más tarde, se ha querido recuperar ese patrimonio, pero adecuándolo al siglo XXI. Se ha dividido el pueblo en cinco valles, cuatro de ellos históricos: Akezkobailara, Buztinbailara, Elbarrena y Mendibailara. Viendo que hoy en día Elba-

Joxin Azkue

“Toponimoak finkatuta geratu dira”



Urteetako prozesua izan da. Zein da zure balantzea?

Batetik, lasaitasuna aurrera eraman delako. Eta pozik jendearengatik jasotako lehen inpresioa ona izan delako.

Prozesu honen bidez zabaldu da toponimo izen ugari benetan nola idazten diren, eta ikusten dut gainera jendea hasi dela barneratzen. Ugareko festak dira horren adibide, orain gutxi arte Ubareko festak izango lirarteke, baina bertan zen baserria Ugarezen, ez Ubare. Lan txukuna egin da, eta toponimoak finkatuta

geratu dira. Hasieran mila elementu ezberdin genituen eta guztiak josi behar izan ditugu bailarak historikoki nola banatuta zeuden ulertzeko, prozesu polita izan da.

Zer izan da zailena?

Administrazioaren erritmoak dira zailenak. Zuk azkar egin nahi duzu eta ez da beti erraza. Baina hor geratuko da egindako lana eta jendeak pixkanaka barneratuko ditu bailarak eta baserri izenak behar bezala.

Aipatzeko moduko bitxikiariaren bat...

Gogoan dut Euskaltzaindiako Mikel Gorrotxategirekin toponimoak lantzen ari ginenean, Errotamendi base-

rrira iristean barrez hasi zela. Ezinezkoa zela errota mendian izatea errekatik kanpo! Baserrikoari eskatu agiriak eta Erretenbarrendi jartzen zuen, erreten baten barnean edo dagoen baserria alegia, baina inguruan ahoz Errotamendi dago zabalduta. Horrelakoak ohikoak dira, hitz egiterakoan izena aldatzen zaie, baina orain, diren bezala finkatu dira.

Inor eskertu nahi al duzu?

Baserritarrei, oro har, ateak ireki eta ekimena oso ondo hartu dutelako. Udalari nola ez, bertako teknikariei eta bereziki Aitor Sarasua zinegotziari, askotan erdian egotea egokitu zaiolako.

rrena solo se utiliza para la zona de abajo, y después de consultar a los vecinos y a las vecinas, se ha creado otro valle: Ergoiena. Salvo Elbarrena, los otros cuatro valles tienen su punto de partida en la plaza P.M. Otaño, como antaño. Y el entorno de la plaza P.M. Otaño se ha denominado Herrigunea.

Cambios de dirección

Las personas que tenían su casa o caserío como *dise-minado* notarán el cambio de dirección, pero no las personas que vivan en alguna calle de Elbarrena o herrigunea. Se les notificará oficialmente por carta la nueva dirección.

Además, el Ayuntamiento ha colocado paneles con


los nombres de las casas para divulgar las nuevas direcciones. “Hemos colocado el panel general en la plaza Pedro Mari Otaño. Junto con los paneles, se han colocado señales que identifican cada vivienda, en algunos casos sobre postes de madera en los cruces, y, en otras ocasiones, directamente en las

fachadas de las casas. En muchos pueblos de alrededor están señalizados los case-ríos, y en Zizurkil había gente solicitándolo. De este modo, hemos respondido a esa solicitud”.

ERREPORTAIA

Saihesbidea eskatze jarri du abian herritarrak

Guraso talde baten ekimenez jarri da abian egitasmoa.



Biala orain!

“Arriskua eta kezka”, bi hitz horiek aipatu ditu ekimenaren sorburuan Elbarrenako guraso talde batek. “Ikusten genuen urteak aurrera proiektua ez zela gauzatzen, duela urte asko agindu eta hasieran krisia zelako atzeratu zela,

eta ondoren aldiz, Aldundiak beste proiektu batzuei eman dielako lehentasuna. Presioa egin nahi dugu”. 2000ko hamarkadaren amaierako azterketen arabera, egunero 10 mila ibilgailu inguru igarotzen dira herri erdigunetik,

horietako asko kamioiak eta ibilgailu astunak dira, Asteasuko poligonoetara doazena. “Batetik zarata dago, Bulandegi edo Ernio Bidean bizi direnentzako egunero beren bizi kalitatea nabarmen murrizten duena. Eta bestetik, arriskua. Haurrekin goazenean bereziki sumatzen duguna”, salatzen dute.

Eragin txikiena

Sinadura bilketaren eskaera ez da 2010eko proiektua bere horretan egitea, “guk ez dugu 2010eko proiektua egitea eskatzen. Badakigu proiektu hark Akezko 3 etxeri eragiten ziela zuzenean. Sinadura bilketa honekin eskatzen dugu saihasbide bat trafikoa herriko erdigunetik aterako duena eta ahalik eta eragin txikiena sortuko duena.

na. Eta uste dugu egin litekeela borondatea izanez gero”.

Ekimena martxan jarri ostean Udalarekin izan dituzte harremanak. “Informazioa jaso dugu, azken 30 urteetan ari baitira Udal gobernu ezberdinak Aldundiari saihasbidea eskatzen, eta promesa ugari jaso arren, oraindik zain gaude. Guk ez genekien baina duela hilabete gutxi egin zuen Udalbatzak azken eskaera. Horregatik, uste dugu, herritarrok indar egin behar dugula eta esan behar dugula argi inguru honetakoak ez garela bigarren mailako herritarrak. Askotan irudikapen hori geratzen zaizu, diruak jende gehiago bizi den lekuetara bideratzen direla edo gehiago interesatzen zaizkiela beste leku batzuk”. Krisiagatik proiektua atze-

Recogida de firmas para pedir la variante

“Preocupación y peligro” son las dos palabras que usan los impulsores de la recogida de firmas para pedir la variante en Zizurkil. “Veíamos que el proyecto no avanzaba. Tras décadas de espera, la Diputación se comprometió a ello en 2010, pero primero por la crisis, y después por que se ha dado prioridad a otros proyectos seguimos esperando”, afir-

man desde este grupo de padres y madres. Todos los días Elbarrena soporta un volumen de tráfico enorme, con una gran cantidad de camiones que van al polígono industrial de Asteasu. “Por un lado, está el ruido que soportamos, sobre todo los vecinos de Bulandegi y Ernio Bidea. Y por otro lado, el peligro que supone, especialmente para los niños

y las niñas del municipio. Nos repercute en calidad de vida”, destacan.

Esta iniciativa quiere hacer presión para retomar el proyecto. “Queremos aclarar que no pedimos que se ejecute el proyecto de 2010, que ya sabemos que afectaba a 3 casas de Akezko bairara. Pedimos un proyecto para sacar el tráfico del centro de pueblo y

que repercuta lo menos posible a otros vecinos y vecinas. Creemos que es posible si hay voluntad”. El proyecto de la variante se remonta a los años ochenta, pero casi cuarenta años después sigue a la espera. “Nos queda la impresión de que en algunas zonas valemos menos que en otros donde vive más gente o la diputación tiene otros intereses”. El objetivo de

ko sinadura bilketa ar talde batek

«Inpresioa dugu Aldundiak beste zonalde batzuk lehenesten dituela»

ratu izana ulertzekoa dela uste dute, "baina orain berriz zergetan lehen adina biltzen ari direla diotenean, ez dago aitzakiarik, eta ikusten dugu ez dagoela interesik egiteko".

Sinatzeko deia

Herritarrei sinadura bilketan parte hartzeko deia egin nahi diete. "Zenbat eta gehiagok sinatu indar handiagoa egingo dugu". Zizurkilen Egarrri tabernan, Atxulondo kultur etxean, Saski kafetegian eta Iriarte jatetxean eman liteke sinadura. Eskualdean ere jarri dituzte sinadura leku

gehiago. "Ondo doa sinadura bilketa baina areagotu nahi dugu", adierazi dute. Eta udazkenara begira ez dute baztertzen ekimen gehiago

egitea. "Badakigu eskualdeko Udalak bilera eskean ari direla Aldundiarekin eta ikusiko dugu zer irteten den hortik. Aldundiaren aldetik konpro-

miso bat lortu nahi dugu saihebidetaren inguruan legealdia amaitzerako". Ez dute gaia beste hamarkada batez atzeratzerik nahi.

Udalbatzak 2017an eskatu zuen osterare saihebidetaren proiektuari ekitea

Zizurkilgo Udalbatzak azken aldiz 2017ko abenduaren 11n eskatu zion Aldundiari saihebidetaren proiektuari berrekitea. EH Bilduk proposatutako mozioa onartu zuen udalbatzak PSEren babesarekin eta EAJren abstentzioarekin.

Bertan gogoratzen denez, "2000ko hamarkadan egin-dako azterketen arabera, 10 mila inguru ziren egunero Zizurkilgo erdigunea zeharkatzen zuten ibilgailuak eta horietako asko Asteasuko poligonoetara doazenak dira, kamioi edo ibilgailu astunen

kopurua oso handia delarik. Gainera egoerak okerrera egin du azken urteetan Abiadura Handiko Trenaren lanak direla eta". Krisiagatik proiektua atzeratu zela gogoratu ostean, berrekiteko unea orain dela uste du Udalbatzak onartutako testuak. Honela Aldundiari eskatzen dio "legealdi honetan proiektua berrekitea, Zizurkilek trafiko aldetik bizi duen egoera gordina aintzat hartuta. Eta gauzapena ez bada ere, bederen, epe zehatzekin bide orri bat marraztea legealdia amaitzerako. Bide horretan, Zizurkilgo Udalaren elkarlana es-

kaintzen zaio Aldundiari izan litezkeen zalantza eta xehetasunak adosteko". Gipuzkoako Aldundira helarazi den mozio horretan, bilera eskari zehatza ere egiten zaio, Aldundiaren aldetik oraindik erantzunik izan ez duena. Joxe Mari Luen-go alkateak jakinarazi duenez "Udalak egin du bilera eskaria beste behin, azkenean badirudi badugula bilera horretarako data: Uztailaren 11an elkartuko gara Aldundiko ordezkariekin. Nahiko genuke erantzun argi bat lortu. Zizurkil en etorkizunerako ezinbesteko proiektua da".

la plataforma es recoger la mayor cantidad posible de firmas y no descartan realizar otras acciones en otoño. En Zizurkil, se puede firmar en los bares Egarrri, Saski o Iriarte y en la casa de cultura de Atxulondo.

Petición del Ayuntamiento

Diferentes gobiernos municipales han pedido reiteradamente a la Diputación la cons-

trucción de la variante en los últimos 30 años. La última vez, el año pasado. El Ayuntamiento de Zizurkil aprobó una moción presentada por EH Bildu en el pleno del 11 de diciembre del 2017, que tuvo el apoyo del PSE. En dicha moción, tras mencionar los datos que apremian la construcción de la variante, el pleno del Ayuntamiento de Zizurkil pidió a la

diputación de Gipuzkoa "que ponga en marcha el proyecto esta legislatura, teniendo en cuenta la cruda situación que está soportando Zizurkil a causa del tráfico". Si no es posible la ejecución del proyecto, solicitó, por lo menos, "que se elabore una hoja de ruta con fechas concretas antes de que finalice la presente legislatura". El Ayuntamiento de Zizurkil

se mostraba dispuesto a colaborar con la Diputación Foral, para aclarar cualquier duda y acordar cualquier detalle, pero no hubo una respuesta de la entidad foral. Tras insistir en la petición de la reunión, la Diputación acaba de emplazar a los responsables municipales a una reunión el 11 de julio.

Ari dira gerturatzen aurtengo festak!

Herriko bi festa batzordeak buru belarri ari dira lanean herriguneko eta Elbarrenako jaiak antolatzen.



Falcons de Vilafranca taldea berriz Zizurkilen izango da.

Ostegunero 19:00etan elkartzen dira Elbarrenako festa batzordeko kideak Atxulondo kultur etxean. "Martxoan inguruan hasten gara eta abuztura arte elkartzen gara astero. Ideiak bildu, aurrekontuak ikusi, forma eman...", diote batzordekideek. Interesa duen herritar orori irekita dago batzordea baina hurbiltzea kosta egiten dela ikusita, aurtengo inkesta bat ere egin dute berbera talde, ideia eta ikuskizun berrien inguruan galdetuz. "Inkesta horretan atera da esaterako, koadrilen edo bluxen bazkariaren ostean jokuak berreskuratzea. Goi-tibehera jaitziera eta jokuak egingo ditugu bluxen artean irailaren 8an".

Aurtengo irailaren 5etik 9ra egingo dira jaiak, eta hasi bezperan, irailaren 4an, krosa eta ohiko barrikotea izango

«Aurtengo ez da danborradarik egingo, txarangak ibiliko da kalez kale»

dira. Aurtengo ez da danborradarik izango. "Ikusten genuen azken urteetan bera zihoran ekimena zela". Txupinazoko arratsaldean txarangaren doinuez gozatu ahal izango da, eta aurrez Zumbatoia ere egongo da. Kontzertuei dagokionez, irailaren 7an, gazte egunarekin bat, PTR herriko taldearekin batera, Skakeitan eta En Tol Sarmiento taldeak izango dira plaza. Haurrentzako ere ekimen ugari ari dira lantzen, "zirkua izango da aurtengo Zizurkilen irailaren 6an Zirika Zirkus-en eskutik, eta 7an ur jolasak, kolore festa, ur tobogana... prestatu

¡Se acercan las fiestas!

Cada jueves a las 19:00 se reúne la comisión de fiestas de Elbarrena en la casa de cultura Atxulondo. "Empezamos sobre marzo. La comisión está abierta a todo aquel o aquella que tenga interés", explican. Este año las fiestas se celebrarán del 5 al 9 de

septiembre, aunque el 4 se disputará el habitual cross popular. Como novedad, este año no habrá tamborrada. "Veámos que la participación iba disminuyendo y hemos apostado por traer una charanga para animar el comienzo de las fiestas". Sin

ditugu". Horrez gain, nola ez, erraldoi eta buru handien kalejira, bertsolariak... azken xehetasunak lotzen ari dira.

Abuztuko jaiak

Jaiak uda betean izanda, lehenago hasten dira elkartzen herriguneko edo Zizurkil Goiko festa batzordeko kideak. "Urtarrilean hasten gara biltzen eta 15ean behin elkartu ohi gara, aurten asteartez, 19:00etan", azaldu dute. Ekainaren amaiera honetan ia itxia dute 2018ko jaien programa. 14tik 18ra izango dira aurten. "5 egunekoak dira aurten. Erabakia dugu ahal den guztietan 4 eguneko jaiak egitea, baina 15a asteazkena tokatu da eta aurten ezin izan da", azaldu dute. Nobedadeen artean, Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du abuztuaren 17an, frontoian. "Eta aurten abuztuaren 15ean berriz bisitan izango ditugu Falcons de Vilafranca taldeko kideak, Kataluinian ohikoak diren giza dorre ikusgarriak eginez. Iazko harrerarekin oso gustura geratu ziren", azaldu dute. Erakusketa bat ere egongo

«Eñaut Elorrietaren kontzertua izango da abuztuaren 17an»

da ikusgai lehen egunetan, "festetako argazki zaharrek erakusketa bat jarriko da Iriarten, Txapel Egunaren aitzakian hasi ginen argazkiak biltzen eta Joxin Azkue herritarra ari da guztiak digitalizatzen. Lehen egunean, iluntzean, inauguratuko da erakusketa". Horrez gain, abuztuaren 18an izango da umeen eguna, bertsolari jaialdia abuztuaren 15ean... ez da aspertzeko tarterik izango 5 egunez P.M. Otaño plaza eta inguruetan.

Bi festa batzordeek gainera, bat egin dute urte amaieran egingo den Euskaraldia-ekin eta aurtengo festetan protagonismo berezia emango zaio euskararen erabilera sustatzeari. Ahaztu gabe, iaz onartu zen eraso sexisten aurkako protokoloa.



Ugareko festak, lehen aldiz

Ugareko herritar talde batek antolatuta, lehen aldiz egin dira bertan festak. Zizurkilgo Udalaren laguntza izan du ekimenak. Udaleko kultura sailetik azaldu dutenez, "herriko beste hainbat eragilek moduan laguntza bat jaso dute baina aurrera begira eskatu diegu Zizurkilgo festa batzordean parte hartzea, herriko festak in-

dartzeak izan behar duelako lehen helburua. Eta hainbat kide hasi dira parte hartzen. Udaletik laguntza emateko prest gaude baina argi utziz beti ere Zizurkilek herriko bi festa dituela, abuztuan eta irailean, eta horiek direla Udalaren ardura." Eguraldia lagun, giro ederra izan zen Ugaren ekainak 1-3 bitartean.

embargo, quieren recuperar los juegos entre cuadrillas para el día de la comida popular. En cuanto a conciertos, el día de los jóvenes actuarán el grupo zizurkildarra PTR y Skakeitan y En Tol Sarmiento. También habrá diferentes actividades para los más pe-

queños, kalejira de gigantes y cabezudos, comida para los mayores... Estas semanas están finiquitando el programa de fiestas.

En cuanto a las fiestas de agosto, este año, se celebrarán del 14 al 18. Entre lo programado, hay que destacar

que Eñaut Elorrieta ofrecerá un concierto el día 17 en el frontón. El día 15, por segundo año consecutivo, los y las zizurkildarras recibiremos la visita de los Falcons de Vilafranca, que realizarán torres humanas increíbles en la plaza P.M. Otaño.

Las dos comisiones de han unido a la campaña Euskaraldia y la promoción del uso del euskera estará presente en las fiestas, sin olvidar el protocolo aprobado el año pasado contra las agresiones sexistas.

Herritarren % 70ak hondakinen tasa merkeago ordaintzen du

Herritarren %29k inongo hobaririk ez du jasotzen uko egiten diotelako hondakinak birziklatzeari.

Zizurkilek gaur egun hondakinen %63 birziklatzen du. Historiako zifrarik altuenetakoa da baina hobea izatea galarazten du herritarren zati baten jarrerak, hondakinak birziklatzeari uko eginez. Argibide hauen bidez Udalak ongi egiten dutenen jarrera eskertu nahi du eta egin diren urratsen berri eman. Gaizki egiten duenari ere gogoeta eskatu nahi dio, guztion ardura baita hondakinak ondo bideratzea eta herria txukun izatea. Gizalege kontua beharko lukeena.

Hobari ezberdinak

Zizurkilgo hondakinen tasa 35,50€koa da hiru hilero baina tasa hori bere horretan, herrita-

«Aurten konpostatzen dutenei ere hobariak ezarri zaizkie»

rren %29,29ak ordain-tzen du. Alegia, Udalak dituen datuen arabera, birziklatzeari uko egiten diotenek. Gainontzekoek hobaria jasotzen dute. Atez atekoa egokia egiten dutenek hiru hilero 10, 45eko hobaria dute, hondakinak ondo kudeatzeak merkatu egiten baitio Udalari hondakin horien kudeaketa. Zabortegira dena nahasian eramatea askoz garestiagoa da birziklatzea baino.

Era berean, aurten indarrean jarri den hobaria autokonposta edo auzokonposta egiten dutenena da. Organikoa konpostatzen denez, Udalak garrario eta tratamendu gastuak aurrezten ditu. 15,80 euroko tarifa murrizketa aplikatzen da hiruhileko bakoitzean. Honela tarifa murriztua dutenak Zizurkilgo 10 herritarretik 7 baino gehiago dira, eta kopuru hau igotzea da gure asmo eta nahia. Hain zuzen, sisteman aldaketak adostu dira birziklatzea erosoago egiteko.

Zigor prozedurak

Ez da inoiz Udalaren nahia izan, baina bere hondakinak modu desgokian kudeatzen



harrapatzen duen herritar orori zigor prozedurak ireki zaizkie, beste aukerarik ez baitu ematen apropos gaizki egiten duenak. Momentuz, 35 zigor prozedura izan dira azken urtebetean. Beraz, guregatik, herriatatik, eta etorkizunagatik, birzikla dezagun.

El 70% de los y las zizurkildarras paga una tarifa reducida por los residuos

Zizurkil, hoy en día, tiene una tasa de reciclaje del 63%. Aun siendo una de las cifras más altas obtenidas hasta ahora, podría serlo más, si no fuera por la actitud de una minoría que se niega a reciclar. El Ayuntamiento quiere agradecer su esfuerzo a las personas que reciclan sus residuos correctamente y quiere pedir una reflexión a las personas que se niegan a hacerlo.

Diferentes bonificaciones

La tasa de residuos en Zizurkil es de 35,50€ cada trimestre. Sin embargo, esa tasa es abonada en su integridad solo por un 29,9% de los y las zizurkildarras, las personas que según los datos del Ayuntamiento, se niegan a reciclar. Más del 70% de la ciudadanía de Zizurkil tiene bonificaciones en su tarifa. Los que realizan correctamente el puerta a puerta reciben una bonificación de

10,45€ cada trimestre, ya que su buen comportamiento disminuye el coste de la gestión de los residuos al Ayuntamiento. Por otro lado, este año se ha empezado a aplicar una bonificación para los que realizan el auto-compostaje o compostaje comunitario. Al gestionar el residuo orgánico mediante el compostaje, el Ayuntamiento ahorra el gasto de su tratamiento. Por ello, reciben una bonificación de 15,80€ cada

trimestre. El Ayuntamiento quiere que más zizurkildarras se unan al reciclaje y, de ese modo, reciban bonificaciones.

Durante este último año se han abierto 35 expedientes sancionadores por depositar los residuos mezclados en la calle. No es el objetivo del Ayuntamiento sancionar a los vecinos y vecinas, pero en algunas ocasiones "no nos queda otro remedio". Reciclar es un deber de todos y todas.

ARGAZKI BILDUMA

Mota guztietako ekimenak, herri bizi baten seinale

Maiatza eta ekaina jardueraz beteriko hilabeteak izan ohi dira gure herrian. Horietako sei argazkitan jaso ditugu.



Bukalairen eskutik, dantzari txiki eguna ospatu zen Maiatza Saltsanen barnean.



Senidetze egunak zizurkildarrak, El Salvadorreko kideak eta Lladoko herritarrak batu zituen maitzaren 26an.



Emakumeen txirrindularitzaren aldeko apustua berretsi zuen Udalak maiatzaren 27an egin zen Aiztondoko sari nagusiarekin.



Ekainaren 10eko giza kate arrakastatsuan 200 zizurkildar inguruk parte hartu zuen.



Ekainaren 16an egin zen bluxen egunak iragarri zuen beste behin udaren etorrera.



Irizibarko karobia berritu da Hernandoren elkartearen eta Udalen ekimenez, Burdina taldearen ezinbesteko lanarekin. Altxor hori bisitatzeko ibilaldia egin zen ekainaren 17an.

ANDER ALTUNA



“Niregan ikusten nituen beharrak, nire txirrindulari eta kirolariei eman nahi dizkiet”

Txirrindularitza pasio eta lanbide du Ander Altunak. Prestatzaile eta Euskadiko Selektioko eta Danena Txirrindulari Elkarteko arduretan dabil, besteak beste.

Urtebeteko bidea egin du Danena Txirrindulari Elkartek. Zer nolako balorazioa egiten duzu?

Oso positiboa. Txirrindularitza aritu nahi zuten umeak bazeudela ikusten nuen baina bailaran ez zegoela eskaintzarik egun: Andoainera edo Tolosara joan behar zuten, eta maiz adin txiki horietan kanpora eraman beharrean zuzenean kirolez aldatzea erabakitzen zen. Bailaran erreferente izango zen talde baten beharra ikusi nuen. 7-8 hurreko hasi ginen eta orain 17 gara. Ni ari naiz taldearen kudeaketa eramaten eta Jokin Alberdik eta Izarne Mayozen ere laguntzen didate.

Abiapuntuko helburuak begiztatzen hasiak zarete?

Planteatu genuen helburu bakarra gazteari txirrindularitza ezagutaraztea zen, modalitate ezberdinak erakusteko. Jokinek ziklo-krossa erakutsi die, Izarne eta nik pistara eraman ditugu, eta Irene Caminosek ere lagundu digu triala

erakusten. Hala bide bat edo beste aukeratzeko momentua iristen denerako, dena probatuta izango dute eta gustuko duten horrekin aurrera egiteko laguntza emango diegu gero.

Prestatzaile bezala noiztik ari zara?

2013an amaitu nituen ikasketak. Madrilen ikasi nuen eta azken urtea distantzian egin nuen, Tolosan lanean hasi eta hona etorri nintzelako. Hango kiroldegian txirrindularitza teknifikazio zentroan aritu nintzen itxi zen arte eta handik Oriara joan nintzen lanera, Arrau-netxera. Han nengoela Suitzako UCI zentrori laneira joateko aukera sortu zitzaidan eta han egon nintzen lau hilabetez. Horrek ate asko ireki zizkidan. Hara joan aurretik hasia nintzen Euskadiko Selektioarekin hautatzaile moduan kategoriatxikiekin eta handik itzulitakoan, errepide eta pistako kategoriatxikiak kudeatzeko ardura eman zidaten federazioan. Hortaz aparte, nire kabuz ere eskaintzen dut prestatzaile

le zerbitzua. Orain dela bi aste Alegin nire zentro propioa ireki berri dut: pres-takuntza, kirol medikuntza, nutrizioa, psikologia... eskaintzen ditugu. Txirrindulari nintzenean niregan ikusten nituen beharrak, nire txirrindulari eta kirolariei eman nahi dizkiet eta helburu hori bete nahian zabaldu dut zentroa: zerbitzu integrala leku berean eskaintzea, alegia.

Besteren artean, emakumeen Aiztondoko Txirrindulari lasterketako antolaketa lanetan zabaldu du urte batzuk egin ditu dagoeneko. Zein du arrakastaren gakoa?

Emakumeen txirrindularitza mundu zaila da. Lasterketa batean parte hartzeko maiz kanpora joan behar izaten zen. Hemen bertan lasterketa antolatzeke beharra ikusi zen eta segi eta segi... sei bat lasterketa izango dira aurten Gipuzkoan bertan. Aiztondokoa emakumeen lasterketetan zaharrentakoa da eta urtero-urtero jarraitzen da egiten. Saia-

tzen gara gauzak ondo egiten eta jendea gustora etortzen da. Prestigioa hartu baldin badu, nik uste egin duen bide horregatik izan dela.

Nola dastatu dituzu hobeto lorpenak: txirrindulari bezala ala...

Prestatzaile bezala. Denborarekin konturatzen zara gauza bakoitza lortzea zenbat kostatzen den eta orain nik gazte horiekin egiten dudana lanketak emaitzak dituela ikustea... satisfakzio handia da.

Esaiguzu...

Zizurkilgo leku kuttun bat: Fraisorotik gora, mugarra dagoen lekua. Hara askotan joaten naiz bizikletan.

Pertsonaia bat: Ez dakit ba...

Zer dago faltan? Ez da erraza izango baina erabilera anitzeko gune bat, kirolarentzat: patinetan, bizikletan ibiltzeko...

Zer dago soberan? Ezer ez



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,
Ernio Bidea 9A, beheko,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.